

Israelgo lehendakariari «ikerketa kriminala» ireki diote, ustez delitu fiskala egiteagatik

Kontuen «azterketa» zena «ikerketa kriminal» bihurtzea ebatzi du fiskalak

Erredakzioa / Donostia

◀ **Ezer Weizman Israelgo lehendakariaren kontuetan Polizia egiten ari zen «azterketa» utzi eta «ikerketa kriminaltzat» aztertzea erabaki zuen**

atzo Eliakim Rubinstein Estatuko fiskal nagusiak. Duela bi aste hasi ziren Weizmanen kontuak begiratzeko, loav Itzjak kazetari independenteak egindako sakaletaren ildotik. Ikerketen arabera, Israelgo presidenteak

450.000 dolarreko dirutza jaso zuen Edouard Sarousi Frantziako milioi-dunagandik. Orain, berriz, Weizman eta Sarousiren artean harreman komertzialak zeudela dioten txostenak agertu dira.

POLIZIAK eta Prokuradoretzak Israelgo lehendakariaren kontuak «aztertzeko» hasi ziren duela pare bat aste, ustez 450.000 dolar jaso zituelako Edouard Sarousi-gandik, Suitzan bizi den frantziar milioi-dun baten-gandik, eta Estatuari ez ziolako eman dirutza horren berri.

Atzo, baina, «azterketa» zena «ikerketa kriminal» bihurtzea ebatzi zuen Eliakim Rubinstein Estatuko fiskal nagusiak. Izan ere, «azterketa» egiten ari ziren Poliziako komandante Iehuda Vilk eta Ikerketen buru Iosi Setbonek Rubinsteini aurkeztu zioten txosten batzuen arabera, Weizman eta Sarousiren artean harreman komertzialak zeuden.

Harreman horiek 1983tik 1984ra eman ziren. Epe horretan, Weizmanek negozioak egin zituen Frantziako milioi-dunarekin. 1984an ministro izendatu zuten Weizman, Isaac Shamir lehen ministro ohiak zuzendu zuen Batasun Nazionalaren Gobernuan, hain zuzen, baina ez zituen Sarousirekiko harremanak eten. Hori dela eta, Rubinsteinek eta Edna Arbel prokuradoreak poliziari agindu zioten ikerketa bat hasteko, Weizmanek ustez delitu ekonomikoak egin zituelako.

Horren ildotik, beste informazio batzuk kaleratu zituen



Israelgo lehendakaria Ezer Weizman, atzo egindako agerraldian.

Israelgo telebistak. Hala, Janina Brandes abokatuaren fondoen artean —Weizmanen kontuen aholkulari izan zen— 831.000 dolarreko balioa duten atzerriko bankuen bidalketak antzeman dituzte Poliziako ikerlariek. Telebistaren ustez, Weizmanek 1998an, lehendakari zenean, 60.000 dolar jaso zituen fondo horietatik automobil bat erosteko. Weizman eta Sarousi armak salerosten aritzen zirela ere bazioten beste informazio batzuek.

Weizmanen abokatuek, berriz, prentsari adierazi zioten atzo Israelgo «lehen herritarrak» ikertua izan dadila nahi duela, «beste edozein pertsona bezala eta pribilegiogorik gabe».

«Errugabea»

Joan zen astean, lehendakariak onartu egin zuen Sarousi-gandik dirua jaso zuela 1988tik 1993ra bitartean. Baina, ukatu egin zuen dirutza 450.000 dolarrekoa zela.

Lehendakaria «errugabea» zela adierazi zuten atzo Weizmanen abokatuek, eta gezurtatu egin zituzten informazio horiek. «Lehendakariak inoiz ez zuen dirurik eraman herri-tik, inoiz ez zuen bere mesederako boterea erabili», esan zuten. Aldi berean, Weizmanek ez duela kargua utziko argitu zuten.

Israelgo lehen ministro Ehud Barakek bere babesa eman zion lehendakariari «denok bizi ditugun une zail hauetan».

Clinton eta Arafat, berriro bakeaz hizketan

Erredakzioa / Donostia

BILL CLINTON EEBBetako lehendakaria eta Jasser Arafat Palestinako Aginte Nazionalakoa (PAN) elkarrizketatu ziren atzo Washingtonen. Ekialde Erdiko bakeari bultzada eman nahi diote, Israel eta Siriaren arteko hizketaldiak momentuz alboratuta baitaude.

Behin betiko akordioa lortu aurreko agiri bat hitzartu behar dute Israel eta PANek, otsailaren 13rako. Hala bil-

tzen du Xarm el Xeikheko akordioak, bi aldeek joan den irailean sinatutakoak. Baina badirudi epea ez dela beteko.

Bilera aurretik, EEBBeta-ko Estatu Departamenduko bozeramaile James Rubinek esan zuen oraindik «erabaki zailak» hartu behar dituztela bi aldeek. Erabaki batzuk dira: palestinarrek estatua izango ote duten zehaztea, Jerusalem banatuko duten eta Israelek zenbat lur utzi

behar duen palestinarren gain. Gaur arte, ia Gaza osoa eta Zisjordaniako lurren % 40ren administrazioa utzi du palestinarren esku.

Tortura salaketa

Lafi Abdul Makhid Rakhabi 20 urteko palestinarra Israelgo atxiloteta egoitza batean hil dela salatu zuen atzo *Al Aiam* egunkari palestinar-
rrak.

LAU erakunde palestinar-
rrak salatu duenez, joan den ostiralean hil zen gaztea, Israelgo indarrek egindako torturengatik.

l a b u r r e a n

T X I N A

■ **17 lagun exekutatu dituzte azken egunetan**
LAPURRETAZ eta hilketa-
akusatutako 17 pertsona
exekutatu dituzte Txinako
agintariak azken ordu-
tan, prentsak atzo argita-
ratu zuenez. Asteazken
gauean eta atzo goizean hil
zituzten guztiak. Gizonez-
koak ziren denak. Am-
nesty Internationalen ara-
bera, Txinak 4.000 lagu-
netik 5.000ra bitarte
exekutatzen ditu urtean.

B U R U N D I

■ **Zibilen 10 eremu itxiko dituela hitzeman du Gobernuak**
ZIBILAK pilatuta dauden
eremuetako 10 itxiko ditu
Gobernuak, atzo adierazi
zuenez. Hala ere, beste 40
bat eremu irekita egongo
dira. Burundiko Armada-
ko buruzagi tutsiek eremu
horietan jarri dituzte
300.000tik gora zibil
—hutuak gehienak—,
gerrillariak isolatzeko
asmoz. Nazio Batuek,
ordea, ez dituzte begi onez
ikusten eremuak.

P A K I S T A N

■ **EEBBetako goi ordezkari bat elkarrizketatuko da Musharrafekin**
KARL INDERFURTH EE-
BBetako Estatu Idazkari-
tzako aholkularia Pakista-
nen da, horko agintari
militar Pervez Musharraf-
ekin hitz egiteko. Mush-
arrafek joan den urrian
Pakistanen estatu kopea
egin zuenetik, horra joan
den EEBBetako kide gore-
nena da Inderfurth.

I R A K

■ **Nazio Batuetako arma begiraleak heldu dira Bagdadera**
ENERGIA Atomikoaren
Nazioarteko Erakundeko
begiraleak iritsi dira Irake-
ra, 1998ko abenduaz ge-
roztik lehen aldiz. Tresna
atomikoak aztertuko di-
tuzte, baina arma nuklea-
rrak egiteko erabiltzen ez
direnak.

GASTEIZKO EUSKALTEGI
BATEAN LAN EGITEKO
IRAKASLEA
BEHAR DA

Helbidea: 2116 posta kutxatila
01080 Gasteiz